

BIZIA EDERRA DA, ZAINDU EGIZU

Lui7-eko izadi guztia, edertasunez, zoragarria da. Mendiak, errekek, arkaitzak, gallurrak, ezin esan beste eder-gallu ditu ta guztien erdi -erdian, jaun antzo, adimendun gizon eta andrak, sorturiko guztien zuzendari.

Eginkizun aundia lenengo arbasoak, biziaren sorreran, artu eben ardurea... menperatu egizue lurra. Ta agindu bikain ori, urrezko katei baten antzera, iñungo ta iñoizko urratzerik barik, guregana, oso osoan, eldu da. Odoletik datorren ondorena da, ta oroz goitik, jainkozko agindu baten itzalpean.

Gizona, here jakituriari eder eretxirik, arrotu egiten da ainbeste edertasunaren aurrean. Egiz, gizontasunik ba-da, giza semea poztu egin bear dau, ta adorez eskuak laneratu, ta orrek osotu bear ditu giza bum argi ta biotzaren adore bere-bizikoak.

Mendiak gora doaz artzain ata artzaiñorak ardiak zaintzera. Eguzkia urrez eriotan dago, zabaldia ameskor, aizea garbi, ta zerua urdin... Txomin eta Patxi eder-miñez zoraturik dagoz izadiaren aurrean. Txomiñek, pozarren, ler bearrez, Patxiri dirautso: Au dok zoramena...! Lurrean ba ete dok onegaz bardintzeko ingururik...?

Patxi'k izadiari begira, zugatzak erne-miñetan dakus ta mendi egalak bedarrez orlegi... ta ardiak an aurrerago, mauka mauka, pozez, bedarrari ekiñez... Mendiaren ederrez zoratuta, Txomini dirautso...

Munduan ez jagok onako tokirik. Egiz, biotzak ez jok, iñun, aurkitzen onango atsedetik, eta begia ezin asetu dok ederraren ederrez. Arbasoen eskua agiri dok, ondorengoei esaten, atxurru ta zaindu gure bizi-iturri diran mendi mamintsuak. Basetxe, erri ta urietan dagozen ol bitxizko kutxak, ortxe, izan juen euren sorrera abia. Ume, mutil ta neskatil ta andre ta gizon, noiz nai, joiezak, zankoak bizkorturik, aize osasuntsuaz bizia indartzera.

Mendiak danantzat dituk eder... ardi, auntz, aker, bei ta goi egalari diran txori bizkorrentzat. Berezko deia jaukek mendi gain aspertu eziñak.

Norkeriak aide batera itzi ta mendiak dana opaka -jaukek, goi urdiña zabaldia, aize garbia ta irudimenak sortu leikezan amets soraarrienak.

Ta mendiak baiño gorago agiri ditut izadia ta gizadia arritzen ditun arkaitzak lurraren ezkon-senar antzera. Izadiaren nagusi ditut ta gizadiaren amets. Giza- semeak, an, jabiltzak munduaren guna gozartu ta izadiaren gangorra, adiskidetasunez, menderatu nairik. Udako orduetan urrezko maindiraz jagozak, dizdiz, printzetan ta neguan edur txapel zuriaz zidar dizdizetan.

Ederra dario aitzarte zoragarriari ta aitz artetik aitz-arteetara bera, ur-jausiak datoz saltari giza begien amesgarri. Urak egin ditu olako bear ederrak ta aizeak ta eguzkiak apaindu.

Mendiak, arkaitzak ta urak, guztiak zelai ta soloetara begira dagoz irripar panpotsetan. Urak umeltzen ditu lurrak eta eguzkiak arnas-barritu ta bizia sorterazi. Ta udabarrian soloa, zelaia ta lur bizkarra ibaiaren inguruan loraz jantzi dira. Ernen, dator biziaren itxaropena ta gizadiaren poza... Ederrez eta janariz lurra beteko da berbetan giza-diagaz bere gogo ona, ederra ta arnari barriak eskeiniagaz.

Bosteko eun emongo deutzudaz dirautso lurrak gizonari. Neguan zaindu nagizu lar eta ota, nire etsaietatik. Alperkeriak ez zagizala nagitu ta zure lurraldeak, bertan bera, itzirik, ondatu. Arto, gari sagar, lur-sagar, porru, bear dozun guztia emongo deutzut ta zure biziari poz barriak ezarriko deutzodaz.

Gizonak, gogoz, entzun ta onartu eutson deia ama lurrari. Ta udabarrian agertu zan lanaren ondorena garitzan, artotzan, sagasti ta maztietan soiñeko orlegiz ta loraz jantzirik. Itxaropena on egiñaren ezitia da.

PAULIN

»»»